

2021/00001524 DEKRETUA

Gaurko datarekin alkateak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA: Hernanin, bi mila eta hogeita bateko azaroaren hogeita lauan.

2021eko azaroaren 2ko (2021/00001360) alkate ebazpen bidez, Hernaniko Udaltzaingoko agente lehen lanpostua funtzionario izaeraz, meritu lehiaketa bidez, zerbitzu eginkizunean hautagaien onartu eta baztertuen behi behineko zerrenda onartu zen. Ebazpen hau Hernaniko web orrian eta Iragarki Taulan argitaratu ziren.

Deialdi oinarri orokorreko zazpigarren atalean zehatutako jarraituz, interesatuei 10 laneguneko epean eman zitzaien egindako okerrak edo akatsak zuzentzeko, behin-behineko onartu eta baztertuen zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Aipatutako epea agortuta eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, 2021eko azaroaren 23ko datarekin Epaimahai Kalifikatzaileak aurkeztutako alegazioak ontzat eman ditu.

Hautaketa prozesua arautzen duten oinarriekin bat etorriz eta dagozkidan eskuduntzekin bat etorriz,

EBATZI DUT:

Lehena: ***6665** eta ***9037** NA zenbakia deun izangaiek aurkeztutako alegazioa onartzea, egindako ikasketak baitira hartu lehiaketan parte harte hartzeko eskatutako ikasketen baliokidetzak.

Bigarrena: Hautagaien onartuen behin betiko zerrenda onartzea, ebazpen honi atxikita doakiona.

Hirugarrena: Zerrenda hauek udaletxeko iragarki taulan, eta Hernaniko web orrialdean (www.hernani.eus) argitaratuko dira.

BEHIN BETIKO ONARTUEN ZERRENDA - 3 HE	
Izen abizenak	NA
Imanol Beroitz Insausti	***6851**
M Cristina Fernandez Yubero	***8290**
Ivan David Legarra Rodriguez	***5009**
Urko Sagastibeltza Elola	***5856**

BEHIN BETIKO ONARTUEN ZERRENDA - 2 HE	
Izen abizenak	NA
Oihane Moya Gonzalez	***6665**
Iker Rodriguez Muñoz	***4898**
Jose Angel San Sebastian Bua	***9037**

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa udal idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut.

Eta horren berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako, eta aldi berean jakinarazten dizu(e)gu administrazio-bidea amaitzen duen berariazko egintza horren aurka **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** aurkez dezakezu(e)la **Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabete**ko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 46 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 114 c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **berraztertze**ko **errekurtsoa** aurkez dezakezu(e) jakinarazitako berariazko ebazpenaren kontra, hura eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo egunetik hasita **hilabete**ko epean.

Hori guztia egin daiteke aurretik adierazitako Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta norberaren eskubideak babesteko egoki iritzitako egintza edo errekurtsoak aurkeztearen kalterik gabe.

Hernanin, 2021eko azaroaren 24an
IDAZKARIA